

# HERRITARREN PARTE- HARTZEA

AUZO BILERA: Erdialdea-barrena

EGUNA: 2015/11/26

Saila

Laburpena

- Alkatetza** Udalaren organigrama bat kaleratzea eskatu du edozein gestio egiteko zein departamentu edo sailetara joan behar duen jakiteko.
- Alkatetza** Bileren aktak udal web-gunean jartzea eta jendeak egiten dituen eskaeren eta iradokizunen jarraipena egitea eskatu du.
- Alkatetza** Auzokide batek Eibarko kaleren bati “Miguel Gallastegui” izena ipintzea eskatu du.
- Alkatetza** Auzoko bizilagun batek hauxe eskatu du: Bidebarrietako lorategian dagoen bustoari oinarria jartzea, gaur Sakunen baitago.
- Alkatetza** Errebalgo iturri zaharra lehen zegoen lekuan jartzea eskatu du.
- Alkatetza** Jardiñetan bideragarritasun eta mugikortasun plan bat egitea eskatu du.
- Alkatetza** Jardiñeta kalean abiadura murriztea eta 30 km/h jartzea eskatu du.
- Alkatetza** Jardiñeta auzoan abiadura mugatzea eskatu du.
- Alkatetza** Auzoetako bileretan beste alderdi politiko batzuk izatea eskatu du.
- Alkatetza** Arragueta kaleko hirigintza-plana ezagutzea eskatu du.
- Alkatetza** Geltoki nagusiarentzat aukerarik onena Estaziño kalea dela azpimarratu du.

# HERRITARREN PARTE- HARTZEA

AUZO BILERA: Erdialdea-barrena

EGUNA: 2015/11/26

## **Alkatetza**

Udalak agindutakoa ez duela bete eta herriaren erdialdea herriaren goiko aldera ari dela lekuz aldatzen adierazi du.

## Laburpena

Sail

a

## **Hirigintza**

Toribio Etxebarria kaleko 19 zenbakiaren inguruan dauden tabernetako terrazek espaloi ia osoa hartzen dute eta oinezkoei ez diete pasatzen uzten.

## **Obrak**

Bidebarrieta kaleko 19 eta 21 zenbakietara iristeko arrapala eraikitzea eskatu du.

## **Obrak**

Bidebarrieta kaleko 11 eta 17 zenbakien arteko lorategiaren obra-hasiera noizko izango den galdetu du.

## **Obrak**

Auzoko bizilagun batek informazioa eskatu du Blas Etxebarria kaleko transformadorea lekuz aldatzeko epeen inguruan.

## **Obrak**

Pagaegi kaleko 3an dagoen espaloiaren izkina hobetzeko eskatu du, aldapa handiegia duelako eta arakaestalki asko.

## **Obrak**

Txomoko parkearen azpian dauden garajeek hezetasuna dutela salatu du.

## **Obrak**

Jardiñeta kaleko 7an bizi den emakume bat kexatu egin da auzoko sarbideak oso txarrak direla esaten.

## **Obrak**

Jardiñetarako igogailua noiz jarriko den galdetu du.

# HERRITARREN PARTE- HARTZEA

AUZO BILERA: Erdialdea-barrena

EGUNA: 2015/11/26

- Obrak** Jardiñetara joateko zati batzuk ez dutela espaloirik salatu du.
- Obrak** El Casco etxeko euri-uren zorrotena konpontzeko eskatu du oinezkoak handik pasatzen direnean busti egiten direlako.
- Hirigintza** Errekatxun aurreikusitako hirigintza-garapenari buruzko informazioa eskatu du, 1, 3 eta 5 zenbakiak ordenaziotz edo antolamenduz kanpo daudelako.
- Udaltzaingoa** Jardiñeta auzoko andre bat auzoan aparkatzeko dauden arazoez kexatu da, Hizkuntza Eskola han dagoelako eta autokarabanez ere han aparkatzen dutelako.
- Laburpena
- Sail
- a
- Udaltzaingoa** Jardiñeta kaleko 29aren eta 31ren artean dauden liztor asiarrak akabatzea eskatu du.
- Udaltzaingoa** Garbiketa-falta salatu dute, jendeak zaborrontzietatik edozein modutan ateratzen duelako zaborra.
- Udaltzaingoa** Jardiñetako andre bat kexatu egin da Ibergaindik Matxarirako bidegurutzean jarritako STOP hori ez delako konponbidea izan eta bisibilitate gutzirekin jarraitzen duelako.
- Udaltzaingoa** Muzategiko 1aren eta 7aren arteko zaintza areagotzea eskatu du.
- Udaltzaingoa** Muzategi aldean bideokamarak jartzea eskatu du alde hura zaintzeko eta seguruagoa izateko.
- Udaltzaingoa** Kekatu egiten da erdialdean bizi den jendeak txakurrak Jardiñeta aldera eramaten dituelako han kaka egin dezaten.

# HERRITARREN PARTE- HARTZEA

AUZO BILERA: Erdialdea-barrena

EGUNA: 2015/11/26

- Udaltzaingoa** Salatu du ostiral larunbatera bitarteko goizaldeetan eta zapatutik domekara bitartekoetan, autoak arrastoekin azaltzen direla Bidebarrieta kaletik Urkizura bitartean.
- Zerbitzuak** San Andrés elizaren irteeran oso argi gutxi dagoela salatu du.
- Zerbitzuak** Jardiñeta auzoko emakume batek Sakun aldea hobeto garbitzea eta txukuntzea eskatu du. Gainera, inguru hartan gazteek botiloia egiten dute.
- Zerbitzuak** Jardiñeta kalea hobeto garbitzea eskatu du. Esaten du asko falta zaiola oraindik txukuntzeko.
- Zerbitzuak** Jardiñeta kaleko 29tik 35era garbitzeko mangera erabiltzea eskatu du.
- Zerbitzuak** Bidebarrieta kaleko 24ko bizilagun batek osteko sasiak eta sastrakak garbitzea eskatu du.
- Laburpena
- Sail
- a
- Zerbitzuak** Muzategi kaleko bizilagun batek 1aren eta 7aren artean garbiketa-arazoak daudela salatu du.
- Zerbitzuak** Jardiñeta kaleko eskailera mekanikoak sarritan apurtzen direla kexatzen da eta mantentze-lan handiagoa eskatzen du.
- Zerbitzuak** Muzategitik Jardiñetara doazen eskailera mekanikoak zikin egoten direla salatu du, batik bat asteburuetan.

# HERRITARREN PARTE- HARTZEA

AUZO BILERA: Erdialdea-barrena

EGUNA: 2015/11/26

**Zerbitzuak**

Emakume batek esan du Orbea kiroldegian poltsak banatzen dituen makina beheregi dagoela.

**Zerbitzuak**

Auzokide batek adierazten du haize-makinak kalerako zaborra sakabanatu eta lorategietan pilatzen duela.

**Zerbitzuak**

Kexatu egin da eta esan du San Andres herri-ikastetxearen pareko edukiontzi marroia ez dabilela.

**Zerbitzuak**

Salatu du Jardiñeta eta Matxaria arteko sahiesbide-zatia aspalditik dagoela argi gabe.